

IN MEMORIAM:  
JULIAN DE AJURIAGUERRA

---

---

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.  
Año 41. Tomo XXXVIII. N.º 1 (1993), p. 11 -14  
ISSN  
Donostia: Eusko Ikaskuntza

## JULIAN DE AJURIAGUERRA

El pasado 23 de marzo ha fallecido en Villefranque, aldea próxima a Bayona, una de las primeras figuras de la Psiquiatría contemporánea, el doctor Julián de Ajuriaguerra Ochandiano, nacido en Deusto el 7 de enero de 1911.

Hizo en París sus estudios de medicina a partir de 1927 doctorándose en 1936. La guerra civil le impidió regresar a su país y, nacionalizado francés, comenzó a ejercer su profesión en París. Nombrado, en 1946, profesor agregado de Neurología y Psiquiatría, en la misma capital ocupó la Jefatura del Equipo de Investigaciones y Reeducción de las alteraciones del lenguaje y de la psicomotricidad del Hospital Henri Rouselle así como la del Laboratorio de Anatomía Patológica de los Hospitales del Sena destacando por su competencia.

Más tarde, en 1959, se le ofreció en Suiza la cátedra de Psiquiatría de Ginebra y allí se trasladó para compartir la labor docente con la dirección de la Clínica Psiquiátrica Universitaria de "Bel-Air". Se jubiló de ambos cargos en 1975 para regresar a París como profesor de Neuropsicología del Desarrollo en el Collège de France. En 1981 se retiró de su vida activa profesional.

Fue la Psiquiatría infantil su dedicación primordial y la obra que, en consecuencia, escribió *Manual de Psiquiatría infantil* (1970) tuvo gran acogida. Pero tampoco le fueron ajenos otros campos de la neurología y las alteraciones mentales de la demencia senil.

En 1980 la R. Academia Española de Medicina le nombró Miembro Correspondiente Extranjero y dos años después recibió el nombramiento de Profesor Extraordinario de la Universidad del País Vasco.

Colaborador de la RIEV, hombre abierto a toda inquietud cultural, acogedor y de agradable trato, profundamente vasco en ideas y sentimientos, se retiró en 1986 a su mansión de "Hegoa" en la que casi sin interrupción ha transcurrido los últimos años de vida hasta su fallecimiento.

## JULIAN DE AJURIAGUERRA

Joan den martxoaren 23an, Baiona ondoko Milafranga herriskan Julian de Ajuriaguerra Ochandiano doktorea hil da. Egungo Psikiatriaren lehen pertsonalitateetariko bat zena Deustun jaioa zen 1911ko urtarrilaren 7an.

Medikuntza ikasketak Parisen egin zituen 1927tik aurrera eta 1936an doktoratu zen. Gerra zibilak sorterrira itzultzea galerazi zion eta, frantses nazionalitatea harturik, bere lanbideari ekin zion Parisen bertan. 1946an oposizio bidez Neurologia eta Psikiatria katedra lortu zuen. Hiriburu berean, Henri Rouselle Ospitaleko Mintzaira eta Psikomotrizitate aldaketan ikerketa eta Berreziketarako Taldeko Zuzendaritza hartu zuen, bai eta Senako Ospitaletako Anatomía Patologikoa Laborategiari zegokiona, egiteko horietan bere gaitasunaz nabarmendu zelarik.

Gero, 1959an, Suitzan Genebako Psikiatria Katedra eskaini zioten eta hara joan zen eta irakas hartuerarekin batera "Bel-Air"eko Klinika Psikiatriko Unibertsitariaren zuzendaritza hartu zuen bere eskuetan. Bi kargu hauek 1975ean utzirik, Parisera itzuli zen Collège de France-ko Garapenaren Neuropsikologia irakasle izateko. 1981ean lanbide ihardueratik erretiratu zen.

Haur Psikiatria izan zen Ajuriaguerraren ihardun eremu nagusia eta alor horretan ondu zuen *Manual de Psiquiatría infantil* (1970) obrak harrera bikaina izan zuen. Halaber, neurologia eta zaharren erotasunaren adimen-aldaketak ukitzen dituzten beste zenbait eremutan aritu zen.

1980an Espainiako Real Academia de Medicina delakoak Atzerriko Kide izendatu zuen eta bi urte geroago irakasle Bereziaren izendapena hartu zuen Euskal herriko Unibertsitatearen aldetik.

RIEV-eko kolaboratzailea, kultur kezkaorori irekitako gizona zen, abegitsu eta tratu atseginekoa, sakonkiro euskalduna hala ideietan nola sentimenduetan, 1986an "Hegoa" bere egoitzara erretiratu zen eta ia bertatik atera gabe eman ditu bere bizitzaren azken urteak.